

TOKIKOM

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria
2012ko urriaren 11
323 zenbakia, 24. urtea



Trapuz beteko da Goiko Kale

Auzoetako festa ugari izaten zen lehen Orion. Horietako asko galduta daude egun. Auzotarren ekimenez, ordea, indarra hartu dute, Goiko Kalen, adibidez

05

Orioko kontuak

Kanpineko inbertsioak

10

Aiako elkarrizketa

Ainara Saizar

14

Erreportajea

Berdintasun Plana

25

Herritarra

Lukene Lizaso

Katu  **Horia** 

ETOLOGIA - PORTAERA ARAZOK
AKUPUNTURA
HOMEOPATIA

LAN-TXAKURRENTZAKO
PREBENTZIO-PLAN BEREZIAK

ESTROPALARI, 10
20310 ORIO

LOKALITATEA
TEL. 943 11 66 99 608 67 64 35

KONTSULTAK
TXERTAKETAK
ERRADIOGRAFIK
ODOL ANALISIAK
KIRURGIA
ILEAPAINDEGIA

uranga
autozerbitzua



Aliprox

Herriko Gudar Telera 13-15
ORIO
943 83 38 75

2GURPIL



Buzabete 2 - 3 - 20010 Ormaiztegui (Gipuzkoa)

TEL. 943 800 880 www.2gurpil.com info@2gurpil.com

azkue

Tf: 943 13 04 38

Allianz

Marigre Zaldua
aseguru agentea

Euzko Ondo, 10 behe-oina
Telefonoa: 943 13 47 90
fax: 943 61 67 52
e-maila: zaldua.dolores.pa@allianz.es

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra,
denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu
konpromisorik gabe

Lan txukuna
eta merkea

Tfnoak: 943 59 59 00

**Soluzioak
gipuzkoarron esku**



BOZKATU ehbildu

Udazkeneko ametsa

1

Sartu berri dan urtaro honek badu kolore ugari, udaran berde ziren hostotan aldaketa da nabari. Eta begira gaztaina, piku, urritz, intxaur, ta madari... edo langilen bizkar gainditu nahi dan krisi gorriari.

2

Lan esperantza berdea ere udazkeneko orria, eskubidean eskean edo kalean orbel berria. Berpintatzera luza beharko degun eskumen urria, gure gustuko kolorekoa dedin aurtengo urria.

3

Melankolia kolorekoa izaten da udazkena, hego haizean ufa epelak astindutzen du barrena. Nahiz eguzkian indarra galdu laino beltzetan barrena, su epeleko kuluxkan dago ametsikan ederreina.

323

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea
20810 Orio
943 83 15 27
karkara@karkara.com
www.karkara.com

Editorea
Karkara taldea
kultur elkarte

Zuzendaria
Lore Berasaluze

Erredakzio taldea
Irati Agirreazaldegia,
Onintza Aiestaran,
Iñigo Gaiton,
Iker Gurrutxaga,
Eli Lasa
eta Idurre Lizarralde

Publizitatea
Iker Gurrutxaga

Publizitatearen diseinua
Iker Gurrutxaga

Testuen zuzenketa
Elizabete Manterola,
Joseba Orella
eta Rikardo Uzquidun

Ale honetako laguntzaileak
Jon Agirresarobe,
Onetsine Arrizabalaga
Itxaso Azkonobieta,
eta Ekain Zubizarreta

Laguntzaileak
Iñaki Iturain
eta Xabier Sukia

Diseinua
Danel Agirre
eta Karkara taldea

Banatzaileak
Kattalin Bollain eta
Esti Uranga (Orioko)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia
Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berremen daiten, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



PUBLIZITATE PREZIOAK

Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko
Iker Gurrutxagarekin hitz egin
(943 831 527) edo
karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Orioko Bildu: “azken 7 batzordeetatik 3tan ez da EAJko zinegotzirik etorri”

Hala zioen EAJ alderdiak azken idatzian: *batzordeetan ezin da askatasunez eztabaidatu, kaudillo batek beti mozten gaitu*. Adierazpen horien aurrean zenbait zehaztapen ditugu egiteko. Haste-ko, azken zazpi batzordeetatik hirutara ez da EAJko zinegotzirik agertu. Goazen banan bana aipatzera, aktan jasoa gelditu baita: abuztuan egin zen kirol batzordean eta iraileko turismo nahiz ogasun batzordeetan falta ziren. Hiru huts egite, beraz. Horrez gain, azken kultura batzordean gai guztiak amaitu aurretik alde egin zuen EAJko zinegotziak, eta, hirigintza batzordera ez zen zinegotzi titularra edo ordezkoa etorri, hirugarren bat baizik. Zergatik diogun hau guztia? Ostera ere informazio falta zaiela esango dutelako. Informazioa izateko batzordeetara agertu behar da eta bat bestearen ordeztu joatean, taldean informatu.

Hori guztia lan arazo edo ezin etorriak guztiok izaten ditugula jakinda. Inork zalantzarik badu, bileretako ordua aldatzeko aukera ematen den edo ez galdetu udaleko teknikariei.

Bestalde, totalitarismoaz zer esan, plenoetara sartzeko karneteko zenbakia eskatzen zuen alkate ohiaren alderdiari. Esan diezagutela zein batzordetan ez zaion utzi Orioko udaleko zinegotzi bati iritzia ematen. Datuak eta frogak behar ditugu, ez arrazoitu gabeko adierazpenak. Hori bai, Bilduko batzordeburuok dagokion moduan antolatzen ditugu bilera: batzordeko gai-zerrendan dauden gaiak lehenbizi, eta galdera-eskariak gero. Eta gairen bat hurrengo batzorderako utziko dela esaten bada, gobernuaren erantzukizuna eta aukera da. EAJ alderdiak berak erabaki zuen gobernuan ez sartzea.

Bukatzeko, informazio faltaz kexatzen dira behin eta berriz. Eskura dituzte udaleko teknikariak behar duten txostena eskatzeko.

Adierazpenak eta salaketak egiten direnean datuekin erantzun behar da. Eta udaletxeko lanean arduraz erantzun behar da. Batzordeak, aholku mahaiak eta plenoa dira lanerako eta iritzia emateko eremuak. Zinegotzi izateak bere konpromisoak ditu, hala ulertzen dugu Orioko Bildun. ■ **Orioko Bildu**

Heritarrei

Gipuzkoa eta Orio bidegurutze batean aurkitzen dira hondakinen kudeaketaren gaitan: alde batetik, errauste planta

eraikiz gero, hamarkadak beharko dira inbertitutako ehunka milioi euroak ordaintzeko. Gainera, gure hondakina zabor toxiko bihurtzeak ez du arazoa konpontzen: erraustegitik urtero aterako diren 100.000 tona zabor toxikoentzat zabortegiak beharko ditugu.

Beste bidea, Europatik datorrena, O Zaborrekook proposatzen duguna da, konponbidearena: gure hondakinetako materiaren balioa berreskuratu behar dugu hauek gaika bilduz eta birziklatuz. Munduan zehar Zero Zabor politikan aplikatzen diren neurriak gurerara ekarri behar ditugu. Bidegurutze horren harira, irailaren 22an, 2 Norabideak irudikatu genituen herriko plazan.

Bestalde, *Ez da marroia; birziklatzea beharrezkoa da* kanpainaren harira, Orio Zero Zaborrek argi utzi nahi du norberak sortzen dituen hondakin eta zaborrak ongi bereiztea eta bideratzea behartzen duen sistema nahi duela, eta, herritarrentzat birziklatzea aukerakoa izatea onartzen duen sistema dela zabortegiak betetzen jarraitzea ahalbidetzen duen gaur egungo 5. edukiontzien sistema. Egun Oriok duen hondakinen kudeaketaren baitan, 5. edukiontzia guztion eskura izatearen alde gaude; zer gutxiago! Baina birziklatzeak ezin du aukerakoa izaten jarraitu; ezin da onartu.

Hurrengo asteetan zenbait ekimen egingo ditu Orio Zero Zaborrek herritarrentzat. Urriaren 23an, 19:00etan, *Errausketari ateak ixten* dokumentala emango dugu kultur etxean; Zubietan egin nahi den erraustegiaren alde ilun eta ezkutuko interesak agerian uzten ditu eta prentsak argitaratzen ez dituen kontuak azaleratzen ditu bideo-lanak. Urriaren 30ean, berriz, 18:00etan, auto-eta auzo-konpostaren inguruko hitzaldia eta tailerra izango dira, toki berean.

Gaiarekin kezkatuta bazaude, jarri harremanetan Orio Zero Zabor taldearekin edo har ezazu parte guk antolaturiko ekintzetan. ■ **Orioko Zero Zabor**

Zorionak eta mila esker

Bihotzez eskertzen dizuet niretzat, eta, oinarrian, herritarrei begira, 5. aldiz Gazte Festak antolatu izana. Zorionak herrietako jai eraikitzaileetan parte hartzearen alde buruhausteak izan dituzuen guztioi. Mila esker! ■ **Iboni**

Pertsona nagusiak eta estereotipoak (2)

Duela egun batzuk idatzitakoari jarraituz, oraingoa, zer eskatzen diogun per-

tsona nagusiei da jarraian argitu nahiko nukeena: *Beste belaunaldi batzuekin elkarlanean parte hartzea*. Adinekook gure belaunaldiko zirkuluetatik atera egin behar dugu, elkar aberastuz, gizarte osoa aberastu dadin. Parte hartzaileak izan behar dugu, eskubide osoko herritar. Belaunaldien arteko harremanak garrantzi handikoak dira: adinekoek hurrengo belaunaldietako kideei arauak, jarrerak eta balio moralak transmititzea komenigarria izan daiteke.

Lehenengo gizarte harremanak familiaren inguruan izaten dira. Sarritan aitona-amonak dira haurrak goxatzen dituzten pertsonarik zaharrenak. Bi norabideen elkarreagina dago harreman horretan; bi aldeak daude inplikaturak, eta biek jasotzen dituzte harreman horretatik eratorritako ondorio onak: aitona-amonak laztanak eta ulerkortasuna eskaintzen dituzte, besteak beste; ilobengandik, berriz, konpainia, maitasuna eta entretenimendua jasotzen dute. Belaunaldien arteko harreman guztiak dira garrantzitsuak, atseginak direlako bizitza osoan; aldi berean, pertsona bere osotasunean garatzea ahalbidetzen dute.

Harremanak, oro har, eta, belaunaldien arteko harremanak bereziki, ondorengo balioetan oinarritzen dira:

Elkarrenganako menpekotasuna: pertsonak elkarrekin partekatutako erantzukizun sentimendua dute.


Elkarrekikotasuna: parte hartzen duten guztiak laguntza emateko zein jasotzeko irakatsi zein ikasteko aukera dute.

Balio indibiduala: parte hartzaileek begirunez eta arretaz hartuak izatea eta berdintasunerako eskubidea izatea mezezi dute.

Aniztasuna, inklusioa, berdintasuna...

Bukatzeko, 2002ko apirilaren 8tik 12ra, Madrilan, Nazio Batuen ardurapean antolatu zen Zahartzeari buruzko Bigarren Mundu Batzarraren Adierazpen Politikoko 16. artikulua dioena aipatu nahi nuke: *Belaunaldien eta belaunaldi arteko elkarrean parte hartzea sendotzeko beharra dagoela uste dugu, adinekoei eta gazteen premia partikularrak kontuan hartuz, eta, belaunaldien arteko harreman solidarioak sustatuz*.

Adineko pertsonen gizarte eta kultur ondasunetarako sarbidea indartzen jarraitzeko premia alde batera utzi gabe, gizarte kohesioa eta belaunaldien arteko lankidetzak hobetzea izango da datozen urteetako helburu nagusia. ■ **A. Campos**



Mobile home gehien dauden tokian, tabernaren atzeko aldean, jarriko dituzte bungalowak. KARKARA/ORIOKO UDALA

Milioi bat euroko inbertsioa egingo du Udalak kanpina berritzeko

Bildu eta Orainen aldeko botoekin, iraileko plenoan onartu zen kanpinako inbertsioa ahalbidetuko duen kreditu aldaketa. EAJk aurka bozkatu zuen, Udaleko altxortegiko gerakina erabiliko delako

Irailaren 27ko udalbatzarrean 8 gai izan ziren mahai gainean eta denak onartu zituen Orioko Udalak, gehiengoz; horietako batzuk, aho batez. Lehenengo hiru gaiak onartu eta gero, kanpinako zaharberritze lanetan milioi bat euroko inbertsioa egiteari baiezkota eman zion Orioko Udalak Bildu eta Orainen aldeko botoekin. Horretarako, kreditu aldaketa bat egitea baimendu zuten, eta, EAJri ez ziztaion ongi iruditu Udalak altxortegiko gerakina erabili izana.

Eztabaida

Jon Redondo, EAJko zerrendaburua, izan zen hitza hartzen lehena. Dirua aurreko urteetako soberakinetik hartu beharrean, datozen hiru urtetako ekitaldietako aurrekontutik hartzea proposatu zuela bere alderdiak gogoratu zuen: *Gure proposamenak, gaur egun mahai gainean dagoenarekin alderatuz, sei hilabeteko atzerapena izango luke, baina esfortzua egiten da inbertsioa aurrekontua-*

rekin bideratzeko. Orain aurkezten den prozedurarekin inbertsioaren %95a soberakinetik eta %5a diru-laguntzetatik lortuko dela gaineratu zuen Redondok. Ondorioz, aurkako bozka eman zuen EAJk.

Segidan, udal-kanpinak herriko ekonomian duen eragina nabarmendu zuen Oraineko Miriam Urangak: *Orioko Udaleko aurrekontuan badago arazo bat, diru sarrera arruntak sortzeko zailtasuna, hain zuzen ere; eta, Orioko Udala kanpina da sarrera horiek elikatzen dituen erakunde bakarra.* Urangaren ustez, kanpina berritzeak zerbitzua hobetzea ekarriko du, eta aurreikusitako aldaketak egin ahal izateko nahiago izan dute Udaleko dirua erabiltzea, banketxei kreditua eskatzea baino.

Azkenik, alkateak hartu zuen hitza. Solaberrietaren ustez, ahal bezain laster egin behar dira kanpina berritzeko lanak. *Bere garaian, diru-sarrera garrantzitsua lortu zuen Udalak kanpinarenak*

ziren lurra salduta, eta orain, diru hori gastatu ordez, inbertitu egin nahi dugu. Izan ere, etekin ekonomikoa lortzeaz gain, lanpostuak ere sortzen ditu kanpinak; horrez gain, herriko merkatari eta ostalarientzat irabaziak dakartza esan zuten Solaberrietak. Finantzazioaz hitz egiterakoan, gerakina herriaren patrimonioa dela gehitu zuen alkateak. Herriarenak ziren lurra saltzetik ateratako dirua herriari onura sortzeko kudeatzea, ondo erabiltzea eta inbertitzea dagokigu guri bukatu zuen Solaberrietak.

Inbertsioa kanpinean

Orioko Udalak 2012rako aurreikusten dituen inbertsioak hurrengoak izango dira: kanpinako bungalowak 175.000 euro eta kanpinako lanak 235.000 euro; denera 410.000 euro. Aurtengoa, gerakinetik finantzatzeko da oso-osorik. 2013rako aurreikusten direnak, berriz, Orio Garatzen S.L. ren ekarpenarekin eta Eusko Jaurlaritzako Arrantza Sailak emandako diru laguntzarekin eramango dira aurrera: 600.000 euroko gastua izango du: kanpinako bungalowak 535.000 euro eta kanpinako lanak 65.000 euro kostako dira.

Egaña eta Lujanbiorekin bertso afaria izango da Goiko Kaleko festetan

Urriko bigarren astebukaeran, 12tik 14ra bitartean, izango dira aurtengo Goiko Kaleko festak. Urteroko ekitaldi gehienei eutsi diete antolatzaileek eta bertso afaria izango da berrikuntza nagusia

Urriko bigarren astebukaeran izaten dira Goiko Kaleko festak, eta, aurten, urriaren 12, 13 eta 14an ospatuko dituzte Pilliku inguruan.

Txikientzako jolasekin hasiko dituzte jaiak. Herri kirol jolasak izango dira Pilliku plazan 17:00etatik aurrera; ondoren, 19:30ean, buruhandiak etorriko dira. Atzetik, festei hasiera emango dien ekitaldia izango da, 20:00etako

kanpaiekin batera: *Atera trapuak* ekimena egingo dute. Gauean, urteroko bingo saioaz gain, Leandro Yaku eta Fabiana Boerr argentinarek osatutako *A mano alzada* bikote akustikoaren kontzertua izango da. Folklore argentinargaraikidearen doinuak eskainiko dituzte.

Larunbata ere ekimenez beteta etorriko da: azoka, *Bertsolharitza* haurrentzako emanaldia, kronoigoera, zinta karre-

ra, txokolate jana eta bertso afaria izango dira. Igandeko bazkaria eta larunbateko bertso emanaldia egin ordez, biak batu eta Egaña eta Lujanbiorekin bertso afaria osatu dute antolatzaileek urriaren 13rako. Kolon Txikin daude salgai sarre-rak eta soberakinak, urriaren 12an betan jarriko dituzte salgai festetako tabernan.

Igandean, eguna esnatzeko txistularien diana izango da, 11:00etan. 12:00etan, berriz, urteroko eran, Benta Zaharreko Mutiko Alaiak eta kantu jira kalez kale ibiliko dira. Aurtengo festak goxo-goxo bukatzeko, 12:30ean hasita, patata tortilla lehiaketa egingo da.

FESTA-PROGRAMA

Urriak 12, ostirala

17:00 *Kulki* herri kirolak haurrentzat, Pilliku plazan

19:30 Buruhandiak eta trikitilariak

20:00 *Atera trapuak* festen hasiera ekitaldia eta pintxo-txikiteoa

22:00 Bingoa festetako tabernan

23:30 Kontzertua: *A mano alzada*

Urriak 13, larunbata

10:00 Barazki, jantzi, pitxi eta bestelako produktuen azoka

16:30 Kronoigoera mantsoa eta zinta karrera

18:00 *Bertsolharitza* ipuin kontaketa

Segidan txokolate-jana eta toka

21:30 Bertso afaria festetako tabernan

Urriak 14, igandea

11:00 Txistularien diana

12:00 Kantu-jira

12:30 Patata tortilla lehiaketa



Urtero antolatzen dute zinta karrera Goiko Kaleko festetan. GOIKO KALEKO FESTA BATZORDEA

LABUR

Hirigintza

Sare elektrikoa hobetzen

Herriko sare elektrikoaren arazoak konpontzeko asmoz, hainbat lan egiten ari da Iberdrola. N-634ko zubi azpian kableentzat sartuko duten hodi berrirako burdinezko oinarri batzuk jarrita dauden arren, lanak atzeratzen ari dira. Bestalde, Baxoalde, Arrantzale, Eusko Gudari, Estropalari eta Bikamiotan ere argindar sarea konpontzen ari dira.

Justizia

Bruño ahizpak absolbituta

Blanca eta Maribel Bruño ahizpa enpresariak ETArri euren borondatez dirua eman izanaren frogarik ez dagoela dio Auzitegi Gorenak bere sententzian; beraz, absolutzioa ofizialki jaso dute biek. Uztailean Gorenako fiskalak zigorrari bere horretan eusteko eskatu bazuen ere, epaimahaiak atzera bota du Auzitegi Nazionalaren zigorra: urtebete eta hiru hilabeteko kartzela zigorra eta hiru urte eta sei hilabeteko erabateko inhabilitazioa 2003 eta 2006 urte bitartean ETArri 6.000 euro eman izana egotzita.

Artea

Iñigo Manterolaren lan berria

Donostiako *En el estudio* arte galeria -Zaragoza plaza, 3- bere lanerako toki bilakatu du Iñigo Manterola artista oriotarrak. *Hasta la cocina performance*- izenburupean, 2x2 metroko arte lan bat nola egiten den ikusi ahal izango du edonork, galeriaren kristaletan barrena begiratuta. Lana hasten duenetik, sinatu arteko prozesua osorik ikusteko aukera paregabea izango da artezaleentzat. Urriaren 3an, 11:00ak aldera, ekin zion proiektu berriari Manterolak, eta, aurreikuspenen arabera, hilabete edo bi iraungo du.

Larunbat goizetan ere ibilgailuak plazatik barrena

Urritik ekainera bitartean, larunbateko 14:00etan itxiko da plaza ibilgailuentzat. Hainbat herritarrek egindako proposamenen arteko oreka bilatu nahirik hartu du erabakia Orioko Udalak



Oinezkoen gunean lasai ibiltzen dira herritarrek trafikoari itxita dagoenean. KARKARA

Aste Santutako oporretatik hona asteburu osoan ixten bazen ere, hemendik aurrera larunbateko 14:00etatik igandeko 21:00etara itxiko zaio plaza trafikoari. Horretarako hainbat herritarren proposamenak hartu ditu kontuan Orioko Udalak. *Ez da erraza guztiei irtenbide egokiena ematea. Goiko Kaleko bizilagunak, dendariak, oinezkoak... hainbat giza-talderen iritziak jaso, eta, guztien arteko oreka bilatzen saiatu gara martxan jarritako azken irtenbidearekin. Bakoitzak bere aldetik esfortzua egin behar izan du horretarako, esan du Amaia Dorronsoro zinegotziak.*

Hala, urritik ekainera iraungo du aipatutako neurriak, nahiz eta salbuespenak ere izango diren tartean. Esate baterako, bidea trafikoarentzat goiz-goizetik itxiko da baldin eta plazan ekitaldiren bat badago; urriaren 6an, emakume arraunlarien 6. topaketaren kasuan egin zen bezala, adibidez.

Ekainetik irailera, aldiz, asteburu osoan itxiko da plaza, oinezkoek lasai ibiltzeko aukera izan dezaten.

Bestalde, herritik ateratzeko Goiko Kaletik barrenako bidea ez hartzeko, eta, horren ordez, Txanka-hondartzako bidea erabiltzeko eskatu die Udalak Orioko eta inguruko herritarrei.

Udan iaz baino ia 3.000 bisitari gehiago pasatu da Turismo Bulegotik

Bertakoak, Euskal Herrikoak, eta Kataluniakoak dira gurera gehien etortzen direnak. Atzerriko turistek ere nabarmen egin dute gora

Ekainetik iraila amaitu bitartean turista mordoa izan da Orion; horietako askok jo du informazio bila Turismo Bulegora. Aurten 7.598 izan dira, iaz baino 2.090 gehiago. Bisitarien gehiengoa gertutik, Euskal Herritik, etorri da, 1.710; espainiar estatutik 3.530, aurreko urtean baino 350 gehiago; eta 1.788 atzeritik, iazko kopurua nabarmen gaituz.

EAEko datuak aztertuz, gehienbat gipuzkoarrak hartu ditugu, bizkaitarrak gero eta azkenik arabarrak. Kataluniatik ere jende asko etorri da gurera -1.107-, eta Espainiari dagokionez, Madrildik 673 eta Valentziatik 368.

Atzeritarrei dagokionez frantsesak izan dira aurrena -608-; halere, kontuan hartu behar da Iparraldeko bisitariak daudela horien artean. Bigarren postuan alemaniarrak ditugu -234-, horietariko

asko erromesak. Atzerriko bisitarien kopurua asko igo da eta aipatu herrialdeetakoak ez ezik Holanda, Erresuma Batua, Irlanda, Belgika, Italia, Israel eta Kanadako biztanleak ere etorri zaizkigu.

Oriori buruzko informazioa eskatu dute batik bat bisitariak: jatetxeak, ostatuak, jaiak eta oinezko ibilbideak; eskualdeko eta Donostiako informazioa ere nahi izan dute. Herriko planoak eta aterpetxeei buruzko informazioa hartzeaz gain, zigilua jaso dute erromesek.

Txu-txu trenak

Txu-txu trenetan bidaia egin dutenak ere asko izan dira: 19.070 joan-etorri kontatu dituzte guztira, iaz baino 4.565 gehiago. Arkupekoek izan dute txu-txu trenaren ardura eta oso gustura daude erantzunarekin, baita gidarien lanarekin ere.



Erromesak turismo bulegoko atarian. KARKARA

Faboritoek garaipena lortu zuten frontenis txapelketako estraineakoan



Beldarrainek jokatuko du aurten ere. KARKARA

Urriaren 3an eta 5ean jokatu ziren lehen jardunaldiari zegozkion partidak, eta, faborito gehienek ez zuten hutsik egin. Aurtengorako ere partida gogorrek espero dituzte txapelketako antolatzaileek

Urriaren 3an, asteazkenarekin, hasi zen aurtengo Orioko frontenis txapelketa. 18 bikotek eman dute izena, eta, ondorioz, sei bikoteko hiru talde egin dituzte antolatzaileek. Partida guztiak ostiraletan egitea ezinezkoa izanik, asteazketan ere jokatuko dituzte batzuk. Hiru norgehiagoka izango dira asteazkenero, 20:00etatik aurrera, eta ostiraletan, berri, sei partida, 18:00etan hasita.

Bikote gehienak oriotarrak izango diren arren, Azpeitiko bost bikotek ere eman dute izena edizio honetan.

Hasiera batean iraileko azken asteburuan hasi behar zuen txapelketak, baina gazte festak zirela-eta, astebetetz atzeratzeko erabakia hartu zuten pilota elkarreko kideek.

Lehenengo partidak

Eneko Galarragaren hitzetan, frontoian urte askotan aritutako bikoteak dira txapelketan jokoan dabiltzan asko. Beste

batzuentzat berria da modalitatea, baina, bestelakoetan, eskuz edo erremontean, jardundako asko dago.

Lehen jardunaldiari dagokionez, markagailuan alde handia izan zen partida gehienetan, baina benetan estu joan ziren lehia batzuk ere izan ziren. Asteazkeneko lehen bi norgehiagokak, esaterako, kostata irabazi zituzten Uranga-Itxaso eta Iraola-Orbegozo bikoteek. Bi tantoko aldearekin irabazi zieten Indo eta Makazagari lehendabizikoek; bigarrenak, 30-25 Aranguren eta Galarragari.

Oso bestelako emaitzak izan ziren ostiraletan. Partida bakarra izan zen gogorra. Bereziartua eta Ostolaza oriotarrek ezin izan zieten irabazi Jimenez eta Garitaonandia azpeitiarrei. 30-24 nagusitu zen kanpoko bikotea.

Bestalde, antolatutako sei partidetatik bi jokatu gabe geratu ziren, kontrarioak ez zirelako agertu. Frontoira joandako parentzat izan ziren puntuak, hortaz.

LABUR

Atletismoa

Orioko Herri Lasterketa

Behobia-Donostia maratoi erdirako pres-taketa gisa jarduteko, aurreko asteetan hainbat lasterketa antolatzen dira Gipuzkoako zenbait herritan. Horietako bat izaten zen Orioko Herri Lasterketa ere, baina, aurtengoan, hil honetan antolatu beharrean, abenduaren 16rako utzi du proba Orioko Herri Ikastolak. Beste lasterketa batzuekin ez egokitzeko eta korrikalari gehiago etortzeko hartu da erabakia.

Eskola Kirola

Martxan jarri dira etxeko txikienak

Urriaren lehenengo asteburuan hasi ziren jokatzen aurtengo eskola kiroleko txapelketak gurean. Lehenengo asteburuan saskibaloiarekin hasi ziren LH 5 eta 6ko neska-mutilak. Orion 6 partida jokatu zituzten larunbatean; horietatik bost irabazi zituzten. Seigarrena, gutxiatik, bi puntugatik, ezin izan zuten irabazi. Karelako harmailak nahikoa beteta egon ziren, eta giro onean jokatu ziren norgehiagokak. Gainerako kirolei dagokionez, laster hasiko dituzte futboleko, eskubaloiko eta atletismoko jardunaldiak.

Futbola

Mutilak erdizka, neskek ondo

Garaipenarekin hasi zuen denboraldia Erregional Preferente mailako gizonezkoen taldeak, baina azken bi partidetan puntu bakarra lortu dute. Kanpoan, bana egin zuten Lengokoak talde donostiarraren aurka irailaren 29an; etxean, 1-2 galdu zuten Mariñoren kontra, urriaren 6an. Bestalde, Ohorezko Mailan dauden jubentilek 10 gol jaso dituzte azken bi partidetan: 5 sartu zizkieten Lengokoak; 5 Zaurutzek. Horrez gain, bitik bi irabazi dituzte kadete neskek eta bigarren daude sailkapenean Intxaurdirekin berdinduta.

agirresarobe
PROIEKTUAK, OBRAK ETA ERREFORMAK

OBRA BERRIEN PROIEKTUAK |
ETXE ETA LOKALEN ERREFORMAK |
FATXADEN ERABERRITZEAK |
IGOGAILUEN PROIEKTUAK |
GREMIO KOORDINAKUNTZA |
INFORMEAK, OBRA LEGALIZAZIOAK, ... |

ITURRIBIDE 5, 5. BULEGUA, ZARAUTZ
BORJA AGIRRESAROBÉ, ARKITEKTOA 635 731722

ARKAITZ
Taberna

Pintxoak,
plater konbinatuak
eta ogitarleko mundialak

ABESLARI ZALEA 4
Tel: 943 33 16 57

“Gizonaren afizioa nire egin nuen eta bion arteko lehia bihurtu da egun”

Igone Mantzizidor

Plater tiratzailea

Emakumezko gutxi ikusten da plater-tiroketa prestaketetan nahiz saioetan. Gutxi horietako bat da Igone Mantzizidor. Denboraldia bukatu berritan izan da gurekin solasean, senarrak ekarri dion zaletasunari goitik beherako erreposoa emanez

LOREBERASALUZE

Basaurin jaioa da Igone berez, baina Zarauzko gizona hartu eta Orion egin du familia. Etxetik etorri zaio plater-tiroketa-rako afizioa, eta, gizezkoekin lotzen dugun kirol horretan trebatzen ari da, senarrarekin batera.

Noiz hartu zenuen eskopeta lehen aldiz platera eskatzeko?

Gizonaren afizioa nire egin nuen duela lau urte. Probatu egin nuen eta gustatu egin zitzaidan; horrela hasi nintzen. Orduetik hona, urtero, martxoan hasi eta urria aldera arte jarduten gara biok plater-tiraketan, bata bestearen kontra lehian, norkegin aurrena.

Lau urte horien buruan bi haurdunaldi izan ditut nik, eta ondorioz tiroketari atzea eman diot pixka bat. Ez diot nahi adina heltzen prestaketari, baina... Gertuko etorkizunari begira jarrita, horixe nahi nuke: sarriago jardutea tiroketan.

Gogoan al duzu zer esaten zizuten gainerako tiratzaileek lehen saio haietan?

Bikote gazte bat ikusteak harrিতuta utzi zituen gehienak hasiera hartan. Kontu izan, helduak direla tiratzaileek gehienak, adin jakin batetik aurrerakoak. Aurreneko saioen ondoren, harridurak alde batera utzi, eta beste edonor bezala hartu gintuzten. Hitz eta pitz aritzen gara orain, lagun giroan.

Zorte ederra daukak! esaten zioten askok eta askok senarrari, bere afizioa ulertu, eta bizi egiten dudalako neuk ere. Gure andreak muturrean egoten dituk beti eta hira, berriz... gehitzen zioten.

Hasieratik federatu behar izaten al da?

Bai, derrigorrez. Ehizako baimena lortu behar izaten da aurrena, eta, armak edukitzeko, atzetik. Legez, federazioaren lizentzia behar-beharrezkoa da plater-tiraketan jarduteko, baita prestaketa saioak badira ere.



INKO

Segituan hasi al zinen txapelketetan parte hartzen?

Hiru modalitate daude plater-tiroketan: *minifoso*, *foso unibertsala* eta *foso olimpikoa*. Plateraren abiadura eta makinatik ateratzeko angelua aldatzen da modalitate batetik bestera, mantsotik azkarra eta angelu txikitik handira, hurrenez hurren. Minifosoan aritzen naiz ni.

Herriz herri plater-tiroketan aritzeko makina moduko batzuk ibiltzen ziren lehen orain gutxiago eta haietan hasi nintzen ni txapelketa edo lehiaketetan parte hartzen. 15 plater hausteko aukera izaten da saio bakoitzeko; beste bi modalitateetan 25na.

Plater gehien puskatzen duena garaile.

Horixe. Berdinketa egonez gero, platerari tiro egin eta huts egiten azkena izan dena izango da aurretik.

Zenbat emakumek hartzen duzue parte? Zer nolako txapelketak izaten dira?

“Zorte ederra daukak! esaten zioten askok senarrari, bere afizioa ulertu, eta bizi egiten dudalako neuk ere”

“Ehizako baimena lortu behar izaten da aurrena, eta, armak edukitzeko, atzetik. Legez, federazioaren lizentzia behar-beharrezkoa da plater-tiraketan jarduteko”

Trebeziaren arabera, hainbat kategoriatan banatuta gaude; 4. mailan nago ni.

Emakumeen artean lehiatzen dugu lehendabizi, eta aukera izanez gero, kategorian –gizon eta emakumeak nahastuta– sar gintezke. Horrenbestez, hasiera batean, Gipuzkoako lauzpabost emakumeren arteko sari txikirako aukera izaten dugunez, txapelketan parte hartzeko ordaindu beharrekoa gutxi izaten da; aipatu bezala, tiraketa ona egin eta kategoriako sarirako aukera izanez gero, zertxobait gehiago ordaindu behar izaten dugu, gizezkoen pare jartzeko.

Estatuan afizioa errotuagoa dago emakumeen artean, eta, hortaz, oso onak badaude tartean. Behin aritu naiz haien aurka, Logroñon. Izan ere, iazko edizioan, Irunen izan zen Espainiako txapelketa, eta, ni haurdun nengonez, ez nintzen joan. Aurten ere ez dugu lekurik lortu.



TXOKO MUSIKALA

“Noizbait, agian, Suhar alabarekin ikusiko nauzue trikitixa jotzen”

Ainara Saizar

Trikitilaria

Txikitan hasi zen trikitixan Ainara Saizar; panderoarekin lehenengo garai hartan, Aiako ume guztiek horixe ikasten baitzuten, denak ordu eta leku berean. Gero, anai-arrebek jotzen zutela-eta, tresna etxean zuenez, gogoia piztuta soinuari ekin zion

IRATIAGIRREAZALDEGI

Beti esaten zion amari trikitixa ikasi nahi zuela, baina erantzuna beti zen berbera: *bai, 10 urte betetzen dituzunean*. Iritsi zen eguna, eta, ikasten hasi zen orduan.

Urte askoan txapelketetako oholtza gainean ezagutu zaitugu. Txapelketa mordoxka bat irabazitakoa zara, ezta?

Txapelketetan panderoarekin ibili izan naiz beti, Xabier Etxanizen alboan, eta, bai, txapelketa mordoxka irabazi dugu elkarrekin: 19 ustez. Xabierrekin jotzeko asko erraztu du aparta baita.

Zein da sekretua hainbeste urtean trikitixarako grinari eusteko?

Askok gustatu zait beti, ez naiz aspertzen. Parrandarik onenak trikitixaren inguruan egindakoak dira; jende asko ezagutu dut. Afariren bat, egun pasaren bat dagoenean, trikitixa eta panderoa ko-txean hartuta joaten naiz beti. Gaur egun jende asko hasten da instrumentu bat ikasten ikasteagatik, berdin zaio bat edo bestea ikasi.

Trikitilari handiekin ere jotakoa zara.

Afarietan edo jaialdietan egin dut topo trikitilari handiekin. Hasieran sinestezi-

na egiten zitzaidan Tapia edo Laja ezagutzea. Gauza on asko ekarri dizkit trikitixak. Hala ere, niretzat trikitilaririk handiena Xabier dela esango nuke, ha-serretuko da bestela.

Duela 3 urte ama izan zinen. Eragin al du zure eta trikitixaren arteko loturan?

Bai. Suhar jaio zenetik utzita egon naiz, baina ez dut damurik; gaztea naiz eta berriz ere aukera izango dudalakoan nago. Azken urtean berriz hasi naiz erromeria edo afarietara joaten. Noizbait, agian, Suharrekin jotzen ikusiko nauzue.

“8.000 lagun en aurrean jotzeko aukera ez du edonork; izugarria izan zen igo eta horrenbeste jende guri begira ikustea”

“Pena ematen dit txapelketetan gazte gutxiago daudelako, baina trikitixa ez da txapelketa bakarrik, bide asko ditu; ez dadila galdu!”

Azken boladan oholtza handiagoetara igo zara. Nola sortu zaizu aukera hori?

Donostiako eta Bilboko Aste Nagusian izan gara. Nahigabe etorri zitzaigun aukera aprobeztatzea erabaki genuen. Txalapatarien bitartez deitu ziguten, eta eskertzen da gurekin gogoratzea.

Zer sentitzen da horrelako taula batean?

Sentsazio berezia, ez ginen batera eroso sentitu. Denbora aldetik oso mugatuta geunden, baita zer jo erabakitzerakoan ere; ezin izan genuen gurea erakutsi. Halere, 8.000 lagun en aurrean jotzeko aukera ez du edonork; izugarria izan zen igo eta horrenbeste jende guri begira ikustea. Oso ondo hartu gintuzten antolatzaileek; esperientzia polita izan zen.

Inguruan trikitixa jotzen ari direnei, txapelketatik eta eskolatik harago joatea gomendatuko al zenieke?

Ez naiz gomendioak emateko inor. Zor-te handia izan dut Xabierrekin jota. Urte oso onak tokatu zaizkigu eta gure arteko harremanak ere asko lagundu digu.

Gaur egun, oraindik, niretzat pertsona oso berezia da, lagun oso ona. Trikitixako bikotearekin ondo ulertzea da gauza garrantzitsuenetariko bat.

Aurrera begira, zer eskatzen diozu trikitixari?

Ez dut oso ondo ikusten trikitixa munda. Pena ematen dit urtez urte txapelketetan-eta gazte gutxiago daudelako, baina trikitixa ez da txapelketa bakarrik, bide asko ditu eta era batera edo bestera ez dadila galdu. Guk hor jarraituko dugu trikitixa eta panderoa astintzen.



Ezkerrean Jesus Mari Gurrutxaga txapeliduna, eta, erdian, Imanol Dorronsoro eta Iñigo Gurrutxaga, hurrenez hurren . J.A. ZALDUA

Jesus Mari Gurrutxagak irabazi du eskualdeko txakur-ehiza txapelketa

Orioko ehiza elkarteko ehiztaria izan zen irabazlea. Bigarren Imanol Dorronsoro izan zen, eta, hirugarren Iñigo Gurrutxaga, irabazlearen anaia. Iturriotzen jokatu zen aurtengo txapelketa

Iraileko azken astebukaeran izan zen Aian, aurtengo txakurrez lagundutako eskualdeko ehiza txapelketa. Iturriotzeko zelaietan jokatu zuten, eta, azken edizio honetan, Orioko ehiza elkarteari egokitu zitzaion antolaketa lanetan jardutea.

Dena dela, Aiako Alkar elkartearen laguntza izan zuten lehiaketa aurrera txukun eraman ahal izateko. Aiarrek epe-rak eta faisaiak askatzen, tiroketa antolatzen eta hamaiketako prestatzen lagundu zieten oriotarrei. Horrez gaine-

ra, beren elkarte gastronomikoa erabiltzeko aukera ere eskaini zieten ehiztariari. Txapelketa egin zen lurretako jabearen baimena ere aiarrek lortu zuten. Horregatik, emandako laguntza eskertu nahi diete Orioko elkartekoek.

Txapelketa

Eguraldi ona izan zen nagusi txapelketa garaian, irailaren 22an, nahiz eta goizean goiz zelai guztiak umel-umel egon, ihintzaren ondorioz.

Harrapaketari dagokionez, ehizatu beharreko piezak bizi ibili ziren, eta, ondorioz, askatu zituztenen erdiak baino gutxiago ehizatu zituzten.

Gauzak horrela, Jesus Mari Gurrutxaga izan zen aurrena, hiru pieza ehizatuta. Bigarren, Zarauzko Arkaitz-Mendi elkarteko Imanol Dorronsoro izan zen, eta hirugarren, Iñigo Gurrutxaga, Orioko ehiza elkartekoa eta irabazlearen anaia.

Behin eskualdeko txapelketa jokotuta, Gipuzkoako txakurrez lagundutako ehiza txapelketan gure eskualdea zeinek ordezkatu duen erabakita geratu zen: Gurrutxaga anaiek eta Dorronsorok gizonetzkoetan, eta, Nerea Amilibia aiarrak emakumezkoetan.

Sukalde eta bainuen erreformak

XANTI MUJIKA

Igeltseritza

699 46 76 21
943 13 10 37

KAXAIO

PLADURRA ETA IGELTSUA

Konponketa eta berrikuntza lanak pladurra eta igeltsuarekin

4josemaria@gmail.com ORIO ☎ 656 777 574

Arreta eta ardura, mesedez!

Tgunkarietan irakurri dudanez, Euskal Herrian, uztailean eta abuztuan, heriotza eragin duten kotxe-istripu guztiak ibilbide laburretan gertatu dira. Datu aipagarri bat azaltzen da hor: Gipuzkoa eta Bizkaian istripua izan dutenen artean, 2012ko lehen 6 hilabetetan, %86 bertakoak ziren; Trafikoko Zuzendariaren hitzetan, ingurua ondo ezagutzen zutenak ziren. Konfiantza gehiegi dute txoferrek errepidea ezagutzen dutenean; ez dute arriskurik ikusten bolantearen aurrean.

Estatuan, berriz, datu estatistikoen arabera, 139 ume hil eta milatik gora zauritu ziren larri 2009-2010 arteko auto istripuetan. Horietatik, %46k ez zezaraman inongo euspen sistemarik; gerrir-

koa jarrita zutenen artean, berriz, %18k bakarrik zeraman ondo jarrita. Datuak aztertu ondoren, Bideko Segurtasun-Fiskaltzaren ustez, ume horiek beren neurri eta adinerako eserleku egokiak izan balituzte, erdia baino gutxiago hilko zen.

Azalpenekin jarraituz, Trafikoko Fiskaltza Nagusiaren arabera, jarleku egokirik eraman gabe hiltzen diren bat eta bi urte arteko ume gehienak beren ama-

ren besoetan, zapalduta, hiltzen dira.

Horregatik, legea gogortu nahi dute kotxe barruan behar bezalako neurriak hartu ez dituzten gurasoei -gidari izan ala ez- lau urte arteko kartzela zigorra jartzeko; beti ere, istripu batean izandako hilketen jarrera horrek eragina izan duela frogatzen den kasuetarako.

Sarritan ikusten ditugu gurasoak, eskola garaian batik bat, ume bila kotxean doazela; askotan presaka, umeak kotxean nolabait sartu eta martxa! *Bost minututan etxean gaude eta ez dago lotu beharrik.* Umea aske, aurrean eserita, tente ere bai... Bestetan, berriz, txoferra sakelako telefonotik hizketan, gidatu bitartean. *Ez da ezer gertatzen, kontuz joaten naiz, bidea ondo ezagutzen dut-eta...* Alferrik da ura joan eta gero presa egitea.

Umea aske, aurrean eserita, tente ere bai... alferrik da ura joan eta gero presa egitea



Txokoak eta jendea
Ez daude zigortuta!

Argazkiko haurren modura, garai batean besoak zabal-zabal egin da jartzen gintuzten arbelaren aurrean gaizki portatuz gero, baina aiar gazte hauek gustura daude udazkeneko eguzkipean. Haizearen urtebetetzea ospatu ondoren atera zuten argazkia. Merienda-rekin sabela berdindu eta gero, jolaserako prest daude denak.



15. Kofradiatik jatetxera

Agirre baserria, Katxiña izenez ezagunagoa. Izen hori orain dela 110 urte inguru han bertan egon zen morroi baten ezizenetik omen datorkio. Gutxi dira baserriaren inguruko datuak, gehienak mendi, bide eta mugarriekin lotutako dokumentuetan irakur daitezkeenak. Baserrietan ohikoa zen bezala, errentan eman zuten Agirre ere. Ondoren, gaur egungo jabeen aitak erosi zuen, eta erai-

kuntza bakar batean zeuden bi etxebizitzak jabe bakar baten esku geratu ziren.

Baserriaren oraingo itxura denboran zeharreko berrikuntzen emaitza da, azkena 1967an, baserria bota eta goitik-behera berritu zuteneko. Garai bateko baserria, ordea, oso ezberdina zen: harrizko pareta sendoz egindako baserria, dobela handiko arku-zorrotzeko atea eta dinteldun leihoak zituen eta eraikin nagusiaren alboan ogi-labea zuen.

Bi gorputzetan banatutako eraikuntza da gaur egun: batean etxebizitza eta bestean Katxiña erretegia daude.

Itxura ez ezik, hango zereginak ere aldatu dira urteetan zehar. Gaur egun baserriko lanik ez da egiten, garai batean ez bezala. Orduan baserriak hiru ukuilu zi-

tuen eta horietan animaliak: behiak, txerriak, oiloak, astoak, txahalak eta untziak. Esnea ematen zuten 10 behi izaten zituzten, eta esnea Orion banatzen zuten. Baratzeko lanak ere egiten zituzten, etxerako batik bat. Irinetarako artoa Txankako errotara eramaten zuten. Baserriak ez omen zuen bizitzeko adina ematen, eta jabea lan askotan ibili zen.

Garai batean sareak ere josten ziren han, eta baserriak kofradia moduan funtzionatu zuen.

Baserri lanak ere bukatu ziren Agirre baserrian; orain dela 30 urte erretegi bihurtu zen. Gaur egun ezagun egin duen zereginetan hasi ziren han.

[ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA: ZEHAZTEN]

tailer mekanikoa

AUTO-LAN
C. B.

arrucien joan gabe talde berria zure zerbitzura



Pelotari kalea, 5 ORIO **943 83 00 34**

Kinkladenda- Ume arropa

argine

www.lasohel.com/argine
Tel. 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA UGARREN TXARTELAREKIN

elavitegia

ANTILLA
jaletxera

Musikeri Kalea, 2 - TEL. 943 83 23 00



Murgibe aholkularitzako Itxasne Martinez eta Irati Arandia Udal idazkariekin elkarrizketan. KARKARA

Berdintasun planerako lehen pausoak




Arantxa Arrillaga Auzokoko arduraduna aholkulariekin solasaldian. KARKARA



Xaltxerak emakume taldeko Aina Peñía eta Eider Salegi. KARKARA

Emakumeen eta gizonezkoen arteko **berdintasunerako diagnostia** egiten ari da Murgibe Berdintasunerako Aholkularitza Enpresa, Udalaren eskariz. Horretarako Udal langileekin eta Orioko eragileekin elkarrizketak egin ondoren, topaketa izango da herritarren iritzia jasotzeko.

TESTUA: IRATI AGIRREAZALDEGI ARGAZKIAK: KARKARA

rioko Udala berdintasun diagnostia egiten ari da Murgibe Berdintasunerako aholkularitzarekin, 2005eko Berdintasun Euskal Legearen harira. Emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzea da helburua, eta, horretarako, ezinbestekoa izango da oriotarren parte-hartzea.

Murgibeko aholkulariek elkarrizketak egin dituzte Udal teknikariek, eta, Orioko erakunde eta elkarteetako kidee-

kin. Aurrez dauden ikerketa, txosten eta estatistikak urriaren 23ko herritarren topaketan jasotako kezkekin osatuko dituzte. *Ikuspegi guztiak jaso nahi ditugu hemengo argazki bat izateko; oriotarrek sumatzen dituzten beharrak, eta hobetzeko arloak zein diren ikusi eta berdintasun planaren helburuak eta ekintzak antzeman ondoren, planaren ildoak marrazteko, dio Murgibeko Iratxe Martinezek. Topaketan, besteak beste, osasuna, lana, heziketa, kultura... bezalako gai buruzko proposamenak jaso nahi dituzte; berdintasuna gainontzeko gai askotan eragiten duen zeharkako gaia izanik, egiten dugun gauza guztietan kontuan hartu behar delako eta ez momentu zehatz batean hortaz hitz egiteko, dio Martinezek.*

Gaia koordinatzeko zinegotzi, ongizate teknikari eta Xaltxerak emakumeen taldekoekin elkartu dira, emakumeen ahotsa presente egotea nahi dutelako.

Xaltxeraren babesa

Gaiarekiko kezka badute Xaltxerakeko kideek, eta, proiektuari babesa eman arren, ez daude guztiz ados. Eider Salegiren hitzetan, gaiari ez zaio heldu behar orain diagnosi bat egin behar delako bakarrik, eguneroko arazoa delako baizik: *Berdintasunean bizi garela saltzen digute, eta, asko lortu den arren, asko dago lantzeko. Diagnostia ez dadila kaxoian gelditu. Diagnostiak helbururik gabe ez du ezertarako balio; beraz, ekintza planaren balioa azpimarratu nahi dugu guk.*

Denbora gehiago behar izan arren, Oriorako diagnosi espezifikoa egokiago ikusiko luke Ainara Peñak. Hala ere, uste du, diagnosira baino ekintzetara bideratu beharko liriatekeela ahalegina eta dirua.

Ekintza planera bidean

Diagnosia egin ondoren, berdintasun planerako behar duten informazioa izango du esku artean Murgibek. *Berdintasun lege bat dago, eta, gizarte osoak beharra duen arren, administrazioak eredu izan behar du. Beraz, ekintza plan bat egiteko beharra badago berdintasunerantz joz. Adibide asko daude behar horren adierazle: langabezia tasa, genero indarkeria, bizitza pertsonala, familiarteko eta lana uztartzeko arazoak...*, dio Iratxe Martinezek.

Dokumentua prest dutenean, Udal teknikariek, herritarrek eta politikariek bilerak egin beharko dituzte, ondorioak eta planaren ildo nagusiak azaltzeko. Ekintza plana egitean zehaztu beharko dute nork kudeatuko duen, zein balia biderekin... eta, lau urterako plana izango bada ere, luzatu egingo dela aurreikusten dute. *Berdintasunerako eta konpromisorako beharra dago herrian.*

Zer hobetu?

Elkarrizketen bidez gaiarekiko zein jarrerera dagoen ikusi nahi dute. Murgibeko koordinatzailearen ustetan, hobetzeko gauza asko dago, baina jarrera positiboa da. *Hizkuntza izan daiteke adibide, baina hemen euskara da nagusi, eta, euskaraz ez da hain nabarmena erabilera sexistak. Bestalde, datuak sexuz bereizita eman behar dira batzuetan. Esaterako, ekitaldi batera zenbat emakume eta gizon joan diren, hurrengoan, gutxi joan direnak erakartzeko bideak indartzeko.*

Hezkuntzan ere hobetu behar dela uste du Itxasne Martinezek, eta horrekin bat dator Ainara Peña ere: *Hezkuntzan berdintasuna ez da behar adina bermatzen, eta, zenbateraino har dezake esku Udalak hor? Ekintzak egin behar direla uste izan, egiteko esan, eta ez dakigu zenbateraino egingo lituzketen. Irakasle naizen arren, hezkuntza sistema kritikatzan dut. Atsedean orduan, esaterako, baloia da jolastokian leku gehien hartzen duena, eta gehienbat mutikoek jolasten dute; neskak, berriz, txoko batean egoten dira beren kontutxoetan.*

Osasun eta publizitate arloetan ere zeregina asko dago Peñaren ustez. Udal langileek gaiaren inguruko heziketa zehatzaz jaso behar dutela ere uste du Peñak.

Berdintasunerako beharra gizartean islatzen da. *Oso bereizita dago rolen kontua. Inkesten arabera, gizonzkoek etxetik kanpo eta emakumeok etxebarrukola*

“Gaiari ez zaio heldu behar orain diagnosi bat egin behar delako bakarrik, eguneroko arazoa delako baizik: Berdintasunean bizi garela saltzen digute, eta, asko lortu den arren, asko dago lantzeko -Eider Salegi”

“Berdintasun lege bat dago, eta, gizarte osoak beharra duen arren, administrazioak eredu izan behar du. Beraz, ekintza plan bat egiteko beharra badago berdintasunerantz joz -Iratxe Martinez”

“Irakasle naizen arren, hezkuntza sistema kritikatzan dut. Atsedean orduan, esaterako, baloia da jolastokian leku gehien hartzen duena, eta, gehienbat mutikoek jolasten dute; neskak, berriz, txoko batean egoten dira beren kontutxoetan -Ainara Peña”

“Parte hartzea toki askotan konpondu gabeko arazoa da, baina hemen mugimendua sumatu dugu, bizitasuna; eta Udaletik ere jarrera irekia, ez da aho txikiarekin esandako zerbait -Murgibe”

“Ohartu gabe, berdintasunaren beharra barneratuta daukagu, eta, askok berdintasunean bizi garela pentsa dezake. Badaude esaten dutenak: sukaldean aritzen naiz edo emazteari laguntzen diot... hitz horiek gauza txikiak dira, baina gizartean sekulako indarra dute -Salegi”

“Batez ere politikoen, propagandarako erabili nahi duten hitz polit bat da berdintasuna”

netan pasatzen dugu denbora gehien, dio Itxasne Martinezek. Hala ere, argi du berdintasuna abantaila izango dela denontzako bizi kalitatea hobetzeko: gizonzko asko gogorak izan eta sentimenduak gordetzen ahalegintzen dira, eta, hori ez da ona, besteak beste, genero indarkeria kontuetan nabarmen ikusten da.

Horrek erakusten du berdintasunaren gaia arazo dela zenbaitentzat, eta, aurreiritzi asko dagoela hainbat arlotan, lan esparruan, esaterako. 30 urteko emakume batek, ama izango dela esanez gero, aukerak asko murrizten dituzte; gizon baintzat, ordea, alderantziz izaten da: ez-konduta egotea eta familia izatea balio positiboak dira.

Ainara Peñaren esanetan, krisia dela eta hartutako neurri asko emakumeen kalterako izan dira, eta etorkinen artean ere, emakumeak daude gaizkien. Bestalde, tratatu txarrak jasotzen dituzten emakumeek ere, egoerarik txarrenean daude: babes eta besarkada bat beharko lukezaten, salaketa jarri behar dute, poliziaren galdeketa hotz bat erantzun... Batez ere politikariek, propagandarako erabili nahi duten hitz polit bat da berdintasuna.

Kontzientziazioa eta parte hartzea

Iritziak jasotzeko orduan jarrera ona ikusi duten arren, sentsibilizazio gehiago behar dela uste dute Murgibekoen, heziketa, konpromiso eta parte hartzea, tekniko eta politikoa. *Parte hartzea toki askotan konpondu gabeko arazoa da, baina hemen mugimendua sumatu dugu, bizitasuna; eta Udaletik ere jarrera irekia, ez da aho txikiarekin esandako zerbait.*

Xaltxerek ere ekintza plana beharrezkotzat jo dute; batez ere, jendea kontzientziatzeko. Ohartu gabe, berdintasunaren beharra barneratuta daukagu, eta, askok berdintasunean bizi garela pentsa dezake. Badaude esaten dutenak: sukaldean aritzen naiz edo emazteari laguntzen diot... hitz horiek gauza txikiak dira, baina gizartean sekulako indarra dute, dio Eider Salegik. Kezkatzen gaituzten gaiak partekatu eta lantzeko gune bat edukitzea eta berdintasunaren inguruko edozein behar edo kezkarri lehenbailehen erantzuteko modua egotea ezinbestekoa da, ez dadin bigarren mailako gaia izan.

Diagnosiaren ondoren plana egin, agintarien aldetik konpromisorik ez egon, eta paper gainean gelditzea alferrikakoa da Martinezen esanetan. Salegik uste du diagnosi gabe ere ekintza plan asko egin daitezkeela. Hala ere, berdintasun planera bidean eman dira pausoak eta Peñaren arabera *mozorro* bat den eta gizartean ez dagoen berdintasun hitzari *mozorroa* kentzea da asmoa.



Etorkinentzat beste plan bat

ARANTXA ARRILLAGA

AUZOKO EGITASMOAREN ARDURADUNA

Etorkinekin lanean nabilen heinean, kolektibo horrekin aritzeko beharrezkoa ikusten dut Berdintasun Plana. Horren falta sumatu dut. Gure eta beste kulturen artean desfase handia dagoela iruditzen zait. Hala ere, oso-oso ongi aztertu beharko litzateke zer nolako plana egin, oso zaila dela uste baitut. Etorkinen artean herrialde eta kultura batetik bestera sexuen arteko harremanak eta ohiturak oso ezberdinak dira; beraz, bi plan egitearen parekoa litzateke: gurekin bat eta beraiekin beste bat, haiek *atzerago* daudelako esparru horretan. Gu horrelako plan batek ez gaitu harritzen, entzutera ohituta gaudelako, baina beraiengan ikastaro huts batek, esaterako, ez luke ezertarako balioko, eraginkortasuna izatea oso zaila litzateke-eta. Hala ere, iruditzen zait egin daitekeela eta egin behar dela.

Udaletik Berdintasun Plana bultzatzea ongi iruditzen zait, baina lau urteko plan batekin ez da ezer lortzen. Martxan dagoen momentuan plana aurrera doa, baina bizitza osorako plan bat izan behar duela uste dut, eta, hori ziurtatu behar dela plan hutsean gelditu ez dadin.

Leku guztietan bezala, Orion ere gauzak aldatzen ari direla dirudi, baina erakuslehoan ikusten dena eta errealitatean gertatzen dena ez dira gauza bera. Oraindik rolak oso markatuta daude; emakumeak lehendik berretzat jo diren paperak hartzen ditu, eta gizonezkoak horietariko batzuk bere egin gabe betikoeekin jarraitzen du. Umeen kasuan ere ikusten da. Eskoletan ikasi arren, etxetik bestelakorik erakusten bazaie... eta beraiek dira agerian uzten dutenak.

Jokabide sexistak saihestu

EIDER GOIBURU

SEXOLOGOA

Ordin berdintasun plan bat egitea guztiz beharrezkoa dela deritzot, gure herriko Udalean oraindik ez baitugu ez berdintasun sailik, ezta berdintasun teknikaririk ere. Berdintasunaren inguruan egin diren lanak herriko emakumeek bultzatutako ekintzak izan dira.

Horrez gain, alde batetik, beste herri guztietan bezala, emakumeok, emakume izate hutsagatik, egunerokotasunean jasaten ditugun jokabide sexistez gain, sexu erasoak ere gertatzen dira gurean.

“Gure gizarteak ezartzen dizkigun arauak sexualitatea, eta ondorioz, harremanak aske eta osasuntsuak izatea, eragozten digute, bestela pentsatu pixka bat: zergatik diraute *puta* eta *marikoi* hitzek irain nagusi bezala?”

Baina indarkeria bortitz kasuetara jo gabe ere, gaur egun, ez emakumeok eta ezta gizonek ere ez dugu geure sexualitatea era aske batean bizi. Gure gizarteak ezartzen dizkigun arauak guztiz eragozten digute sexualitatea, eta, ondorioz, harreman osasuntsuak izatea. Bestela pentsatu pixka bat: zergatik diraute *puta* eta *marikoi* hitzek irain nagusi bezala?

Ondorioz, beharrezkoa da, parekidetasunean eta aniztasunari errespetua dion gizarte osasuntsu batean bizi nahi badugu, emakume eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzen duen plan bat aurrera eramatea, herriko gizarte eragile ezberdinak kontuan hartuz eta inplikatur.

Zabor ikustezina garbitzeko

IBON ARRIZABALAGA

BERDINTASUN ERAGILEA

Batzen ustez berdintasuna aspaldi lortu bazen ere, oraindik asko falta da horretarako. Orion bertan rolak oso ongi banatuta daude, eta gizon eta emakume izatea bi gauza oso ezberdin dira. Homofobia ere presente dago, eta gay eta lesbianek beste hiri batzuetara alde egiten dute, hemen diren bezala agertu ezin direlako. Ikusten da baita ere krisiaren eraginez pobrezian emakume gehiago dagoela, emakumeen kontrako indarkeria ere hor dago... Gai horiei ez zaie garrantzirik ematen, berdintasun plan bat-edo abian jarritz jorratu ezean, eta borondate onaren menpe gelditzen dira. Orain, berdintasunaren harira, Gizarte gaietatik... sumatzen da mugimendua; Orion, haste-ko behintzat, interesa erakutsi dute.

Xaltxerak bezalako talde eta ekimen gehiago egotea interesgarria litzateke, baita gizonak inplikatzeko ere.

Berdintasun plan batek beti laguntzen du, eta ongi egongo litzateke alor horretan Orion zein berezitasun dau den jakitea. Hala ere, oso erraza da *egin dugu* esan eta hor uztea, hitz hutsetan. Plan batek hori gauzatzeko borondate politikoa, adostasuna eta aurrekontua behar ditu. Izan ere, plan baten helburua Europak eskatzen duen espedientea betetzea izan daiteke, edo borondatea dagoelako egitea, besterik gabe; eta borondatea baldin badago, bada, primeran.

Orain oso modan dago zaborren gaia. Horiek ikusten diren zaborrak dira, baina zabor asko ditugu gizartean ikustezinak direnak materialak ez direlako. Sexismoa, arrazakeria... oso arazo serioak eta egunerokoak dira, baina poltsetan pilotzen ez direnez... horiei ere heldu egin behar zaie!

Independenteak bagina

Independenteak bagina estatu bat ginategi. Atturitik Ebrora lurralde librea, burujabea eta soberanoa, ez bi mugen artean estututako estatua. Ez litzateke estatu berri bat sortzea edo eraikitzea, berreskuratzea edo berreraikitzea baizik. Lapurtu ziguten eskubide historiko baten berrerabilpena. Lehen izan baginen, orain zergatik ez?

Burujabea izateko neurri neurriko lurraldea da gurea. Hiru milioi laguneko euskal estatua. Neurri bertsuko 58 estatu daude munduan. Ahots propioa dutenak, European eta munduan.

Independenteak bagina, Juan Karlos erregea ez litzateke elefanteak hiltzera joango gure diruarekin.

Independenteak bagina, gure hezkuntza sistema propioa izango genuke. Horixe litzateke geronek kudeatu eta diseinatutako sistema, euskalduna eta balioko sozialetan oinarritua.

Euskaratik eta euskaraz ernatutako administrazio publikoa izango genuke.

Gure eguneroko elean hitza indartuko lukeen euskal egitura eleanitza.

Independenteak bagina, mundialetan, gure kirolarien selekziozko txandalak politagoak lirateke eta ereserkia ere bai.

Where are you from? galderari, ez genioke *we are a little country between France and Spain* and... erantzun beharrik izango. Pasaportea erakutsi eta nahikoa.

Independenteak bagina, ze kantari bidaliko genuke Eurovisionera?

Erreskatatu dezagun gure burua menpekotasun behartu honetatik. Independenteak bagina, zoriontsuagoak izango ginategi. Gu eta gure ondokoak

Espainiara, atzerrira, oporretara joango ginategi.

Independenteak bagina, ez lego ke ETarik, ez preso politikorik, ezta estatuaren itzalean egindako ekintza terroristarik ere.

Behingoz euskaldun guztiak ordezkatzeko gintuzkeen lehendakari bat izango genuke.

Independenteak bagina, Europako bisagra ginategi, Iparraldetik hegoaldera, Afrikara pasatzeko bidea.

Gure konstituzioa izango genuke, guk pentsatua eta guk erredaktatua. Gure legegak, gure hezkuntza, hizkuntza... eta gure zergak ongizatean inbertitzeko.

Independenteak bagina, aldarrikapen historikoa eta kulturala ez ezik, gure premia ekonomikoa da. Erreskatatu dezagun gure burua menpekotasun behartu honetatik.

Independenteak bagina, zoriontsuagoak izango ginategi. Gu eta gure ondokoak.



Orioko Herritarren Ikastola

IKASTOLAK ondorengo sistema duen administrazio burua behar du.

- Enpresa kudeaketan, administrazioan, logistika eta informazio sistemak.
- EGA.
- Informazioaren erabilpena eta inbertsioaren erabilpena.
- Kudeaketarako eta ekonomia kudeaketarako gaitasuna.
- Partetzeren berrantolaketarako gaitasuna.
- Lantzerietan, administrazio lanetako esperientzia.

eta beste kudeaketa baten esperientzia izatea beharrezkoa da.

Hautagiziek www.oriokoikastola.net web orrian dagoen inprimakia bete behar dute eta hori egiteko azken eguna urriaren 22a izango da. Argibide gehiago: telefonoz: 943 834 704, e-postaz: orio@ikastola.net

azkue

karrozeria

Ubegun Industrialdea, 7 20809 Aia-Orio

Tel: 943 83 51 86 Camocerasazkue@hotmail.com

BARAKA

gure burua

Oraindik ere
in ez da
faterko burua
Etxeak

943 15 15 12

Aitor

BERME Aholkularitza S.L.

Zingira eta logika zehaztasunarekin

Maneak eta zehaztasunarekin

- Aholkularitza orokorra
- Aholkularitza zehatza
- Lanaren kontrola eta zehaztasuna
- Informazioaren erabilpena
- Aholkularitza zehatza

Jakinarazteko: 943 83 09 37

943 83 09 37 / 943 83 27 47

Dorromoro Denda

1963tik zure ondoan

BETKO DENDA

Tel 943 83 09 37

Automóviles ZARAUZ

Zarauzko Zehaztasunarekin

943 83 09 37

Carmen eta Txomin ARABEGUI

943 83 09 37 / 943 83 27 47

Galeña

Igo zaitez haize berriarekin!

943890416 / 977149934

galeña7orio@histmail.com

Lotan

Lstatu Batuetako sekretuak aieratu zituen Assangek, okupa Ekuadorko enbaxadan; Madrilen egurra eskal estilorik bortitzenear; indignatuak baino, potrotaraino daudenak Iruñean bilduta; eskola hirueledun kontzertuak Gasteizko euskara maila hobetzen; alkohol eta preserbatibo salmentak gora Suitzan eta Londresen; Eurovegas laster bertatik bertara; 2030erako mundua enpresa edo korporazio handiena izango da eta arnas hartzeagatik ere ordaindu egin beharko dugu; 2025erako munduko populazio osoaren %25ak bakarrik izango du ur garbia edateko aukera; Tristiano Ronaldok hiru gol sartu ditu azken partidari; jadanik 600 milioi begetariano badaude munduan; denok hala bagina, ez litzateke inongo sez hilko; Belgikako igarle batek bere bezeroen neska eta mutilagunen izenak asmatu ditu, kuxako karnet zenbakia 20 digituekin batera, interneten nabigatzen. All our life is in the internet; amaitu dira udako arrats bero gozoak aurtengoz.

John Mayerren *Waiting on the world to change* kantarekin atera ninduen iratzargailuak goiz hartan nire ametsen zurrunbilotik.

Gasteizko hiria esna argitu zen, normalean baino koloretsuago, baina isilago. Alde zaharra isilik zegoen, taberna eta dendetako ate oro itxita eta gortinak jaitsita. Denak zain zeu-

den eguerdiko manifestaziorako. Jende multzo bat, asko, uste baino gehiago, kabitu zitezkeenak baino gehiago, beharbada, elkartu ginen Frantzia kalean, eta, Andra Mari Zuriaren plazarainoko bidea lasai bezain gogotsu egin genuen. Haserrea umore bihurtu zuenik ere bazen: neska batek *Hezkuntzan murrizketarik ez, poliziek ere ikasi nahi lukete* zioen kartela zeraman harro.

Arratsaldean, ordea, Gasteizek beste bat zidudien, ez ordu batzuk lehenagoko hiri haserretu hura. Goizeko indarraren erakustaldia ez zen errepikatu. Jende gehiena lasaitu egin zen berriz ere, prestatu nolabait hurrengo murrizketa onartzeko, oraindik bukaerarik ikusten ez zaion krisi honetatik ateratzeko erreforma prozesu honetan. Jendez bete ziren irekitako tabernak, irekitako dende kaleak eta kolorez *Corte Inglés, Boulevard* eta bertako marka handien saltokiak. Tristeia zen jendea telebista aurrean egongo zela pentsatzea. Ipurtalde ubelduak, behin eta berriz jasotako ostikoen eraginez, sofan lasai bermatuta berri txarrak entzuten, zirkinik egin gabe. Politikariek monopolian jolasean diharduten bitartean futbolari lotsagabe eta aberatsei begira.

Zer da gertatzen zaiguna? Inoiz baino informazio gehiago dugu gertatzen denaren inguruan *informazioaren gizarte* ditxosozko honetan. Eta halere, badirudi ez dugula ezer ikusten. Nola onartu bestela jasaten ari garena? Nola jarraitu horrela bestela, behingoz haserretu gabe? Nola egon jakinaren gainean bestela, denok batera erantzun bat eman gabe?

Triste bueltatu nintzen etxera eta atzera burkoan ezkutatu nuen burua nire ametsetara itzultzeko. Akatsa hori zela pentsatu nahi dut, eta, denborarekin ikasiko dugula informazio egokiari so egiten. Hala ez bada salduta baikaude.

Esnatu, entzun, ikusi, begiratu ingurura eta haserretu! Gaur haserretzen ez denak ez baitu bihar negar egiteko eskubiderik, tabernara joan eta kexatzeko eskubiderik.

Nire honetan Irati Agirreazaldegi

Autobus eta trenean gora

Autobus geltokian goizeroko ganora. Ahoa zabaltzeaz bat gelditu dadin eskua gora. Garaiz datorrenarako, ondo da.

Iritsi da Donostiara. Semaforoa berde jarriko zain nagoela auto baten *zaparrada*. Gidariariari bost axola arren, nire amorrua kanporatzeko eskua gora altxa dut, hara!

Bueltarako tren. Errailen gainean ziur dakit ordurako helduko naizena, baina ez da uste bezain ondo atera dena.

Igogailu berrian egin nahi nuen geltokitik beherako proba, baina hemen ere ezinezko da. Txirindulari batek apenas du denbora eta igogailuan bizikleta sartzeko derrigorrez gorpila gora.

Trenetik nirekin batera jaitsi da bi umeren ama eta ume kotxea eskutan darama. Hura igogailuan sartzeko zela. Amak eta biok besotan, aulkitik gora altxata hartu behar haur bana.

Igogailuan behera iritsi orduko entzun dut marmarra. Adineko bat gurpildun aulkian sartzeko tirri-tarra. Hura ere jaiki eta gora zutik joan beharra.

Autobusa eta tren, tren eta autobusa. Erabili behar direla bai, baina zailtasunak dituztenei trabak jarri ordez, bidea lauan egin aurretik edo ondoren aldapa gora jarri ordez, zergatik ez eman laguntza? Kexa jarri dut bai, baina konponbidea hutsa.

Inoiz baino informazio gehiago dugu gertatzen denaren inguruan informazioaren gizarte ditxosozko honetan. Eta halere, badirudi ez dugula ezer ikusten. Nola onartu bestela jasaten ari garena? Nola jarraitu horrela bestela, behingoz haserretu gabe?



IGLESIAS SARRAILAGILEAK

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesias@sarrailagileak.es
2010 ORIO

- ATYAK BIKERTEEN DITUGU
- SARRAILA-XOLERO ALDAKETAK
- ATYAK (ETXEN) MALBUKIN ALDAKETA
- KOMUNITATEBETEAN ZERBITZUA



INDO

Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskeogia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

Gabon
TABERNA
Plater konbinatuak, pintxoak
Tfnor: 943 83 06 09

Goizeko
KAFETEGIA
☎ 943 83 28 55
Aita Leizola 33 beheko · ORIO
Autobus parada ondoan

Faroeko bakailaoa daukagu
ITSAS MENDI
guztizak
Dirko Gabet 3 · Tel: 943 24 07 74 · Orio

ITZALA
kartelak, jokatzeak, atzipenak
ul. 943 83 12 59

PIZZERIA

KALETA
ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46


gizarte
kutxa

libe
dietetika
elikadura aholkularitza
eusko gudariak 35 · ORIO
(santxo Amantzele kaleak) 943 53 64 94 · 697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com

KAIUA

Plater konbinatuak,
bokalak, kanburgesak...
ANASKO POITRA 36, BEHEA · TF: 943 940 080

TANATORIO ZARAUZ
EUROFUNDARIAS TALDEA
Hilata eta zerbitzu orokorrak
Araba kalea, 35 · Zarauz
Tel: 943 89 48 77 · fax: 943 89 48 41
e-mail: harnespil@harnespil.net

- * Donazio eta probintziako ospitaleetan
- * Aldiarako zerbitzua
- * Belatorio gelak
- * Koroiak, eskalak, transtasioak...

KOLON TXIKI
KOLONIALETA
JOSTUNGA
Herriko Emparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

Maider Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361
oinarri
PODOLOGIA ZENTROA

kutixi
kafetegia
BOSATI GORDAK
Asteaga, 20810 Orio
Tel. 943 83 12 59

Lizaso
dekorazioa

Eusko Gudari, 45
Tel: 943 83 07 84 Fax: 943 83 07 84

MIRANDA
BARRIOZAR
Tortxa, ate, teilu, azuleio...
behar dituen arren lanak
egingo ditugu
Urdesoro bidea, 1 · e-943 42 32 70 · ZARAUZ

ODITZ
Penna zabalera indarrek
egon da inberrugaitz
Tel. 943 83 00 89

943 83 09 86
KOASTA
Wifi zerbitzua
Kopak, gau giro aparta...

LOBETXU JATETXEN

Eusko Gudari, 18 · Tel: 943 83 00 07

LURDES
ARRITZUELA

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

Ille zurgandegia
MARIJO

Neska eta mutilentzat
Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

Gaia emanda Festak betikoen erara

Festak joan, festak etorri, zaharrak berri. Jende bertsua dabil hango eta hemengo, iazko eta aurtengo, jaiak antolatzen.

Borondatea bai, bilerarik ez

Banikolasak eta sanpedroak, festa batzordearen ardura-pean. Bisigua Udalak lidergoa

hartuta, herritarren borondateari esker. Gazte festak, koadrilek antolatuta. San Martinak eta Goiko Kalekoak, auzotarrek. Horrez gain, Gabonak eta inauteriak ere elkarlanean. Arraun Eguna jaitsierarekin eta traineruak festa bihurtzen dizkigun igandeak. Eta ahaztu zaizkidanak. Hasi urteko jai egunak kontatzen eta behatz gutxitxo izango dituzu denak zenbatzeko.

Bakarren batek esango du gurea ez dela herri martxosoa edo parranderoa. Eta agian arrazoi izango du: txaranga baten atzetik lepotik helduta joateko koadrila aurkitzea kostako zaizu gehien. Gainontzean, baiezkokoak. Konpromiso handiko jendearekin topatu izan naiz kalean, eta Udalean sartu eta ustea berretsi. Nekosoa iruditzen zait udal brigadaren lana ere: oholtza, aulki, txosna eta parrilla mugitzen hamaika izerdi. Bakoi-tzari berea.

Borondatea bai, baina jendea ez da bilera zalea. Baina beharrezkoak dira. Betiko

Etxekolan bat gelditzen zaigu: arrakasta duten jarduerak ohitura bihurtzea

hamar bat lagun, urtero bi-hiru aurpegi berri. Baina nahikoa da, ardura osokoak badira: zentimoak zukutzen eta asmo guztiak lau eguneko egitarau estuan sartzen jende artista izan dut ondoan. Udalarari dirua eskatu beharrean herritarrak mugiarazten dituztenak. Hau gogoan izan: inguruko festarik merkeenak dira gureak.

Lanerako jendea aurkitzea ez da zaila gure herrian. Ezezkoak oso gutxi, nire zinegotzi karreraren bakarra, urte eta erdian. Konpromiso praktikoak deituko nioke: *Niri ez eskatu bileretara joateko, zer egin behar da?* hala dio jendeak.

Eta danba, ardura hartu eta bete. Hau ikusita, zein da Udalaren egitekoa? Ideia edo txispa sorrarazi, lagundu eta baliabideak ematea. Jendea mimatzea, festak jarraitpena izan dezan.

Etxekolan bat gelditzen zaigu eta gure agintaldian bete nahiko nuke: arrakasta duten jarduerak ohitura bihurtzea. Alegia, sanpedroek eta sanikolasek ideia berriak izan ditzatela urtero, baina festen izaera eta jarduera klabeak mantendu daitezela. Festen hasiera, koadrilen eguna, umeena, iluntzeko saltsa... Aldea antzemango dugu, urte gutxian.

Portzierto, aurtengo sanikolasek itxura zoragarria daukate.

Jon Agirresarobe

Kulturako, euskarako, hezkuntzako eta festetako zinegotzia

Auzotik auzorako

Uda bukatu da, baina oraindik ez da festa giroa amaitu, bada-toz-eta Goiko

Kaleko jaiak! Badira zortzi urte lagun koadrila bildu eta Orioko alde zaharreko jaiak berpiztu zituztenetik. Helburu nagusia auzoa biziberitzea zen, eta asmo horrekin jarraitzen dugu urtero. Alaitasuna eta bizia kalera atera nahi izaten ditugu, ekintza desberdinez, musikaz eta kantuez blai. Herritarrak han eta hemen parte hartuz Goiko Kalera jendea gerturatzea pozgarria da benetan. Herriko gune historikoa izanik, herritar askok ez baitute inguru eder hori sarri bisitatzen. Antolatutako ekintzak, gainera, adin guztientzat bideratzen saiatzen gara.

Batetik eta bestetik ezagutu garen koadrila da antolaketan lanen urteroko muina. Talde horri, ordea, urtero gehitzen zaizkio auzoko

Antolaketarako oso erabilgarria zaigu teknologia berrien bitartekaritza. Nire kasuan, urteak eman ditut Bizkaitik email bidez antolakuntzan eta aurten, berriz, Alemaniatic!

nahiz inguruko lagunak; internazionalak ere bai sarri! Eta urtero izaten da txandapasa egin behar izaten duenik ere. Iraileko lehen bileran ideia-zaparrada itzela izaten dugu. Urteroko ardura nagusia, ordea, festetako taberna non kokatu izaten da. Kalean hasi ginen; ondoren Brit-Enean urte batzuk pasa, eta berriz kalean karpak jarrita ospatu genuen 4. edo 5. urteurrena. Azken urteetan borondate hoberenez utzitako lokalean izan gara, eta, aurtent, alboko sagardotegian ospatuko ditugu jaiak. Eskertzen da jendearen eskuzabaltasuna, eguraldiak ez baitu urtero laguntzen festa kalean egin ahal izateko!

Lehenengo bileraren ostean email-festa hasten da. Oso erabilgarria zaigu teknologia berrien bitartekaritza antolaketan. Nire kasuan, urteak eman ditut Bizkaitik email bidez antolakuntzan, eta aurtent, berriz, Alemaniatic!

Azkenik, lokalaren apaintzea eta festa egunak ahalik eta hobekien joatea besterik ez da gertatzen. Horretan ere auzoa lagun, lokalerako apaingarriak utzi, azken momentuko prestaketak... esker-rak eman nahi dizkiot jaiak antolatzen, eta bertan urtero parte hartzen duen orori. Aurten ere ikusiko garelakoan, eta urtez-urte biltzen jarraitu dezagun... atera trapa-kuak!

Onetsine Arrizabalaga

Goiko Kaleko festen antolatzailea



Kale, Albixu eta Larra, ezkerretik eskuinera, duela urte batzuk K2 tabernan emandako kontzertuan. KARKARA

Okasio espeziala auzolotsaren egunean

Kritika Folkcore

Musika taldea, Jon Albizu, bateria-jotzailea; Arkaitz Iparragirre, Joxe Mari Irure *Pepelu*, gitarra-jotzailea; baxu-jotzailea; Haritz Larrañaga, abeslaria; eta Joxerra Rodriguez, gitarra-jotzailea.

Urriaren 12an, Txalupa tabernan, 23:00etan

Folkcore taldeak duela zazpi urte itzali ziotuen anplifikagailuak, dozena bat urteko ibilbideari amaiera emanenez. Jarkorearen eszenan sobera estimatuak –*E. Gazte planeta* bezalakoetatik urrun, noski–, 3 maketa eta disko bat utzi zizkiguten on-

dare. Baita kontzertu gogoangarri askoren oroitzapena ere; horietako batzuk gurean, Orion. Baina baita Katalunian, Kanariar uharteetan, Espainiako Zaragozan, ; talde lagun zein famatuekin: *Fly Shit, Misconduct, Bad Religion, Corazón del Sapo, Berri Txarrak, Anestesia, 30%...*

Anpliak itzali bai, baina barruko harrak kosk egin eta hura baretu beharrak tarteka oholtzara bultzatu ohi ditu. Pattar kopatxoa familia bazkarietan soilik edaten duen senidea bezala; *okasiyo espezialetan*. Horrela izango da Txalupakoa. Baita aspaldi ikusi gabeko adiskide zaharren topaketa ere, oholtza

gainean zein parean, auzolotsaren egunean. Ez denak zorritzarrez. Joxerra handia ez da izango eta beste batzuk ezingo gara agertu *agenda arazoak* medio. Berdin dio, urte batzuk barru *ikusten garenen* elkartzera behartuko ditugu berriz. Baita makulu eta oxigeno –O₂– botilekin aritu behar badute ere.

Zarata bizia maite duzu? Bada primerako aitzakia daukazu aspaldiko partez, hondartzako buelta egiteko. *Oka-siyo espeziala* izango da.

PATXI URANGA

Ikasleak idazle
Itxaso Azkonobieta

Kofradia

Ustez, herritar gehienok dakigu zer den eta non dagoen kofradia. Badira urte asko eraiki zela, eta, noski, jada oso zaharkiturik dagoela ikus dezakegu. Jende askok dio, eta baita nik ere, erortzeaz dagoela; beste gutxi batzuek, aldiz, ez dute berdin uste. Baina ez al da arriskutsua dagoen egoeran uztea?

Alde batetik, kofradian bertan, eskaleak daudela esaten da, eta bai etxebizitza moduko bat edukitzeko duten aukera gutxienetakoa izan liteke, baina ez da batere segurua, lehen esan dudana arrazoi berarengatik.

Bestetik, leku horretatik jende ugari igarotzen da egunero, paseatzeko, entrenamendura joateko... eta baita beste hainbat gauzarako ere. Orain nire galdera da, eta norbaiten gainera erortzen bada? Imajina al dezakezue zer nolako txikizioa gertatuko litzatekeen?

Honekin guztiarekin esan nahi dudana da, gure kofradia ez dela jada lehen zen bezain sendoa, eta ezustekoren bat gertatu baino lehen, segurtasun osoz botatzea komenigarriagoa dela.

Eta kofradia norbaiten gainera erortzen bada?



» HANDIK ETA HEMENDIK

“

Oso baliagarria iruditzen zait norberak dakiena besteekin partekatzea. Bada jendea ezagutzak berarentzat gordetzen dituen, gainontzekoek berak baino argazki hobekoak atera ez ditzaten”

Ez zait atsegin, nire lana aurkezten dudanean, norbaitek argazki bat ikusi eta berehala nirea dela identifikatzea. Horregatik, askotariko teknikak eta gaiak jorratzen ditut”

Koro Arratibel, argazkilaria, Urola Kostako Hitza, 2012-X-4

» OSPAKIZUNA



Zaharren Babeslekukoak bidaiari

Europar zehar egin dute bidaiari, autobusez, Zaharren Babeslekuko 52 lagunek. Tours, Brusela, Amsterdam eta Orleans izan dituzte atsedena-leku, baina Rotterdam, Gante, Brujas, Marken, Volendam, Madurodam, Haga, Delft, Anberes eta Chanborden-argazkian- ere izan dira tokirik esanguratsuenak ikusten. Amsterdamer pasa dute denbora gehiena; kanaletan ere ibili dira txalupan. Primeran ibili dira bidaiari.

» ZORIONAK!

Gabon tabernari

Urteak eta urteak eman ditu Gabon tabernak KARKARAKO erredakzio taldearen eta asteburuko zuzentzailearen bitartekari lanak egiten. Bi astez behin, ostiraletan, aldizkariaren zirraborra gordeta zeraman karpeta jaso eta zuzentzaileari emateko ardura izan dute orain arte; aldizkariaren bueltako bidea -zuzentzailetik kazetarienganakoa- ere Gabonetik pasatzen zen KARKARAREN zenbaki berri bakoitzeko.

Behin baino gehiagotan larritu izan dira tabernakoak kazetaria karpeta bila berandu samar pasa izan delako, KARKARA garaiz bukatuko ez gundenaren beldurrez-edo.

Eskerririk asko guztiagatik!



RAMIRO
argazkiak

www.fotoramiro.com
fotoramiro@fotoramiro.com

610 69 76 68
943 83 10 48

PERTSIANAK
AKO MAZ

Atamirio, PVE:
Venezianak
Motorrak...

Tel: 943 43 29 01 Muzikaria 600 76 52 77

URAITZ
Lursindogin

Tel: 943 83 18 97

Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO BAGASTI
Tel / fax: 943 43 00 77
sagastileihoak@telefonica.net
Arrantzale kalas, 65
20610 Orre (Gipuzkoa)

Santi Barranco aseguru agentea

Aritzaga 2, 2. solairua ORRIO

Tel: 918 561 398 - 659 216 221 e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

SEGUROS BILBAO

Grupo CAJAS ANA OCCIDENTE



Intxaurretako Luis eta Jose Ramon San Sebastian aita-semeak, Inazio Oliden *Konpaxak* egindako alan. IITURAIN

Saikolatik Mapilera alan

Oroimenaren kutxa

90 urte ditu, baina Eusebio Aldaz *Xubai* sasoi oneko gizona da. Haurtzarora Saikolan igarozuen eta hangokontuak oso gogoan ditu, ez zaizkio ahanzturaren zuloan erori. Gogoan du fabrika lana nola egiten zuten, zenbat jendek, egindako espartinak nola eramaten zituzten erriean barrena, eskola ere nola jarri zuten... Gauza asko.

Gogoratzen hasita, hangorronka baten berri ere eman zigun, lehia bitxi batena: Sabe-Sarobe- eta Gaztelu baserrietako bina gizonak estro-

pada jokatu zuten alan, Saikolatik Aginagako Mapilera nor lehenago iritsi. Eusebio pasadizo hura dena nola gogoratzen duen ulertzeko, bada osagai inportante bat kontu honetan: Pello Saikola bertsolariak jarritako bertsoak:

Estropa bat izan da Aginagaraino, / Saikolatik hasita Mapil pareraino, / bide puxkat badago dudikgabe baino, / laster iritsi ziran puntu hartaraino.

Jose ta Jose Mari mutilak azkarrak, / ez dituzte eman prueba kaskarrak, / zein dirala ustezute gure peñatarrak, / bejondaiela bioi gora sabetarrak!

Saikolatik Mapilerainoko

hiru kilometroak egin zituzten, alan, bi biren kontra: Bata, polainean eta, bestea, arraunean estriborretik. Alde batetik, Sarobe baserriko Jose eta Jose Mari Peña anaiak, eta bestetik, Gaztelu baserriko Damaso eta haren lagun bat.

Eusebio bertsoak gogoan dituela ikusita, harritu egin ginen eta galdetu ea nola den posible, horrenbeste urte pasatuta, bertsoak oraindik gogoan izatea eta hauxe erantzun zigun: *orduan, lanaz aparte, ezitxeon beste ezer, bertsoak kantatu eta kantatu.*

IÑAKI IITURAIN

JAIOTAKOAK

■ Ez da jaiotzarik izan.


EZKONDUTAKOAK

■ Ez da ezkontzarik egon.

HILDAKOAK

■ Modesta Lertxundi Odriozola, Aian, irailaren 29an. 80 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora: **943 83 15 27**



SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak: Arrain zopa, Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel.: 943 83 00 05 / 943 13 25 32

URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremuntak

Tel: uranga@euskalnet.net

Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

tel/fax: 943 89 00 69

Eskola kalea 4 22 80234UTZ

URBIDE

ITURGINTZA, BEROGINTZA, GASA, BAINU, ERAKUSKETA

“Drogak kontsumitzeko modua aldatu egin da, inpultsiboagoa da”

Lukene Lizaso

Gizarte Hezitzailea

Ikastetxeetan, eta Zarauzko bulegoan batik bat, gazte eta nerabeekin prebentzio lanean ari da lanean Lukene Lizaso Agipad elkartearekin. Ikerketa, prebentzioa eta drogak hartzearen ondorioz kaltetutakoak laguntzea dira elkartearen helburuak

IRATI AGIRREAZALDEGI

Osasun heziketa eta droga-menpekotasunen prebentzioa helburu zituen Askagintza elkartearen hasi, eta, orain, Agipaden ari da Lukene Lizaso lan eta lan.

Zer egiten duzue Zarauzko bulegoan?

Elkarrekin Zarauzko ikastetxeetan lanean ari zen, eta, noizean behingo saioak egiteaz gain, kezkak argitzeko astean behin irekita dute bulegoa. Datozeneri behar dutena ematen saiatzen gara. Askotan informazio hutsa, bestetan kezkak argitzea: zergatik pasa zitzaidan hau? Hori normala ote da? Gerturatzen dena seriozitatez etortzen da, eta, guk anonimotasuna bermatzen diogu. Adin txikiko batek arazo larri bat duela sumatzen dugunean, berriz, gizarte zerbitzuetara bideratzen dugu.

Zein da zerbitzuaren helburua?

Drogen inguruan ahalik eta kezka eta tabu gutxien egotea. Zalantzak aldame-nekoari galdetzen dizkiote, hark ez badaki beste batek kontatu diona erantzun diezaioke... Gai tabua izanik, hutsune hori betetzea da helburua.

Nolako jendea joaten da?

Askotarikoa. 18 urteko jendea sustantziak hartu eta gertatutakoa normala den galdetuz etortzen; umeak drogak zer diren jakin nahian; zerbitzuaren berri jakitera; eskolako lan bat egiteko informazio bila... Askok kontsumitzaileak dira, efektuen berri galdetuz edo kontsumitzeko asmoa dutenak gerta litekeena jakin asmoz. Aurrez aurre, lasai, hitz egiten dugu. Noizbait erantzunen bat jakin ezean, bion arteko harremanari eusten diogu e-maillez edo ahal den eran.

Drogen arazoa gero eta larriagoa al da?

Arazoa larritu baino, kontsumitzeko modua aldatu da. Inpultsiboagoa da eta ondorioz koma etilikoak, gaindosiak... gertatzen dira. Gazteek ez dakite beren burua kontrolatzen, gero eta diru gehiago eta ardura gutxiago daukate. Larunbata iritsita, kezka bakarra da parrandara atera, mozkortu eta, ahal bada, ligatzea.

Zein droga kontsumitzen da gehien?

Alkohola. Legala izan arren droga da, nahiz eta gizartean oso onartua egon, eta, ospakizun askotan edan. Tabakoa ere, jaitsi arren, asko erretzen da. Ilegalen kanabisa asko kontsumitzen da.

Noiz bihurtzen da droga arazo?

Norberak sustantzia kontrolatu beharrean sustantzia hori bera bizitzako ardatz bihurtzen denean, eta dena horren jiran antolatzean. Norbaitek arazo larria duela konturatzean, arazoa duen hori bera ohartarazi behar da.

“Norberak sustantzia kontrolatu beharrean sustantzia norbere zentru bihurtzean bilakatzen da droga arazo”

“Gazteei ahalik eta informazio objektiboena ematen diegu eta kontsumitzen hasteko adina atzeratu ahala erabakitze gaitasun handiagoa dute”

Drogen inguruko arazoaren aurrean gogor jokatu beharko duzu, ezta?

Istoria batzuk entzuteko horma moduko bat jarri behar da. Gurasoak drogazale izandako umeak, droga salmentagatik aita kartzelan dutenak... eskolaren batean tokatuz gero, ongi pentsatu behar da gaiari buruz nola hitz egin. Gazteek ere bizitako esperientziak kontatzen dizkidatenean... koma etilikoa izan zuenekoak, adibidez; orduan konturatzen dira zein arrisku hartu dituzten. Sekulako nahastea dute buruan askotan, eta, ahalik eta informaziorik objektiboena eta guraso eta irakasleekin bateratuena ematen saiatzen gara. Gero erabakiko dute drogak hartu ala ez, baina kontsumitzen hasteko adina atzeratu ahala, pertsonak erabakitze gaitasun handiagoa du. Eskoletan prebentzio arloan aritzen gara eta bulegoan aholkuak ematen; oso zaila da gukesandakoen ondorioak ikustea.



KARKARA

26. orrian jarraitzen du
4. orrialdetik dator

Eskerrik asko

Kaixo:

Idatzi honen bitartez, esker ona adierazi nahi dizuegu, Orio AE-ri 2012ko denboraldi luze honetan eskaini diozuen arreta eta jarraipenagatik. Datorren denboraldian ere elkarren berri izango dugulakoan, mila esker! ■ Orio AE

Eskerrik asko Ikastola

Behin baino gehiagotan oztoporik gabe ttuntturroetarako materiala uzteagatik, bihotzez eskerrak eman nahi dizkiogu Orioko Herri Ikastolari. Inguru horretan ez dago ttuntturro talde askorik, eta, zuei esker, gure kulturaren parte den ohitura zahar hori pixkanaka zabaltzen ari da. Eskerrik asko benetan. ■ Orioko Ttuntturo taldea

Eta zu gehiago

Ez genuke errepikakorrak izan nahi. Egunero-egunero errepikatzen gatozena, errepikatu beharrik ez izatea izugarri gustatuko litzaiguke. Baina errealitatea burugogorra da, eta, ez bakarrik errealitatea, Orioko Bildu ere oso burugogorra da. Izan ere, nahiz eta behin eta berriz esan zein gaizki dabilzan, ez dute aldatzeko ezertxo ere egiten.

Erantzunak saihesteko jolasean ere ez genuke hasi nahi; Bilduri horrenbeste gustatzen zaion jolasean. Izan ere, ba-

tzordeetan jasaten dugun askatasun faltaren salaketa larriaren aurrean, batzordeetan dugun partaidetzarekin ateratzen zaizkigu-eta: abuztuan eginiko batzordean, adibidez, zinegotziek familia eta udala uztartzeko eragiketan, oporrrak egiteko aukera dute eta, gainera, ez ohiko gairen bat ez bada, ez da epe lektibo bilerak deitzeko. Edo, kexu dira batzordeetatik alde egiten dugula; baina ez dute esaten bi ordu eta erdi pasa ondoren joaten garela, eta, diktaminatzeko zeuden gai guztiak diktaminatuta utzita.

Aurreko legealdian jo eta ke aldarrikatzen zuten diktadore hutsak ginela, eta arrabola pasatzen genuela egun bat bai, eta hurrengo ere bai. Azken boladan ikusten ari garenekin zeraz ari gara jabetzen: guregatik esaten zutena, berek egin nahiko luketenaren desioa zela.

EA Jren gobernua kazikada bat da esaten zuten, baina benetan zera esan nahi zuten: guk gobernua izan nahi dugu nire metodo faxistak aplikatu ahal izateko!

Eta gogora ekarri beharrea gaudela, aurreko legealdian 11 zinegotzitatik EA Jk 4 bakarrik zituela. Esango diguzue nola pasa genezaken *rodilloa*...

Gauzak horrela izanda, jarrera obskurantista –gardentasunik eza– eta diktatoriala –partaidetzarik eza– salatu beharrea gaudela. Zeinen partetik? Partaidetza eta gardentasuna hitzekin ahoa bete hortz duen alderdiaren partetik –jarrera hori bere lagunekin izango dute, zeren beste bizilagunekin...–.

Ziur gaudela oriotarrei ez zaiela Bilduk nahi duen *eta zu gehiago* jolas hori batera interesatzen. Oriotarren kezka nagusia herritarrek berek aukeratutako ordezkariak gobernatuta, herrian sortu daitezkeen beharrei erantzuna behar den

bezala ematea da. Eta hori eman ahal izateko gutxieneko baldintzak ematen ez direlakoan gaudela.

Horren guztiaren azalpena adibide baten bidez egingo dugu: Gazteria eta Kiroletako batzordea. Gai zerrendatik kanpo, Baleike elkarteari –ez dugu eza gutzen– gazteria alorrean proiektu bat burutzeko 21.000 euroko diru-laguntza esleitzeko proposamena. Ez dago informazio gehiagorik. Datu horiekin bozkatzera. EA Jko ordezkariak informazio gehiago eskatzen du, eta baita gazteria teknikariak ere, berak ere ez baitu inongo informaziorik proiektuaren inguruan. Ba gauzak horrela egonda, informetarik gabe, aurrekaririk gabe, aurrekontu zehatzik gabe, bozkatu egiten da eta onartu! Arrabola gainetik pasa zaigu berriz ere!

Zer garatuko duen ez dakigun proiektu baterako 21.000 euro. *A dedo* aukeratutako elkarte batentzat, proposamena bermatuko duen eta beharrezkoa den lehiaketa publikorik gabe. Non daude hemen konkurrentzia, gardentasuna, publikitate...?

Oposiziotik gogor egingo dugu lan gai horiek guztiak behar den moduan bideratzeko: ordenatuta, ongi antolatuta eta legalki. ■ Orioko EAJ



Altxerriko kobaren erakusketa

Altxerriko grabatuak aurkitu zituztela 50. urte bete direnez, erakusketa jarri dute Aiako Kultur Etxean. Urriaren 28ra arte astegunetan 09:00etatik 12:15era eta 15:30etik 19:15era egongo da ikusgai eta 11:30etik 14:00etara aste bukaeretan. Tailer didaktikoak ere antolatu dituzte bisitariak modu aktiboan Historiaurrean murgiltzeko: silex lanetan, haitzuloetako margoetan, lepokoak egiten... Izena Kultur Etxean eman behar da: 943 13 09 24.

Aia

Podologoa

■ Urriaren 20an, podologoaren kontsulta. Ordua hartzeko deitu: 943131144.

Odol-emaileak

■ Urriaren 23an, odol-ateratzea. 18:30etik 20:30era, Sendagilearen Etxean.

Irteera

■ Urriaren 25ean, Ulibarri-Ganboako urtegi ingurura ibilaldia oinez edo bizikletaz, Aiako kirol elkarteak eta Lar-dizabal guraso elkarteak antolatuta. 9 urtetik beherakoek arduradun batekin joan beharko dute. Irteera: 08:30ean, Aiako aparkalekuan. Buelta: 14:00etan. Izen-ematea: Iturriozenan, urriaren 23a baino lehen. Prezioa: 3 euro.

Hauteskundea

■ Urriaren 14an, EHBilduren aldeko ekitaldia. 09:00etan, Pagoetara ibilaldia; iristean, gurutzan argazkia aterako dute. Ondoren, hamaiketako plaza.
■ Urriaren 19an, EHBilduren aldeko triki-poteoa, 19:30ean. Ondoren, pintxo-jana.

Orio

Hauteskundeak

■ Urriaren 11n, EHBilduren hauteskunde kanpainako eskualdeko ekitaldia. Hizlariak: Marian Beitialarrangoitia, Rebeka Ubera eta Beñat Solaberrieta. 19:30ean, EH Bildu argazkia, Herriko Plazan. 20:00etan ekitaldia Kultur Etxean.
■ Urriaren 13an, EH Bilduren BECeko ekitaldi nazionalera joateko autobusa. 15:30ean Orioko autobus geltokian.

Irteera

■ Urriaren 12an, 12:30ean; 14an, 16:30ean; eta 20an, 10:30ean. Kayak irteerak Oria ibaian zehar. 2 ordu. Prezioa: 12tik 16 urtera bitartekoentzat, 7 euro; gainontze-koentzat, 13 euro. Kirol jantzia-

keramatea aproposa da, igeri egiten jakitea ezinbestekoa, baina arraunean trebetasuna izatea ez da beharrezkoa. Irteera eta aurrez izena ematea Orioko turismo bulegoan: 943 83 55 65

Hitzaldia

■ Urriaren 16an, *Brain Gym* -garun gimnastika- hitzaldia. Ezagutza indartzeko eta gure gaitasun eta ahalmenak gartzeko mugimenduak dira. Irkus Fernandez funtsezko terapeutaren eskutik. 18:00etan, Kultur Etxean.
■ Urriaren 23an, auto eta auzo-konpostari buruzko hitzaldia. 19:00etan, Kultur Etxean.

Ipuin kontalariak

■ Urriaren 16an. Ines Bengoa ipuin kontalariaren saioa. 18:00etan, Udal Liburutegian.

Traste zaharrak

■ Urriaren 17an, traste zaharren bilketa ohiko zabor ontzien ondoan. Aurrez udaletxera deitu zer botako duzuen jakinaraziz. Tf.: 943 83 03 46.

Bilera

■ Urriaren 23an. Emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunerako diagnostia egiteko topaketa herritarrekin, Murgibe berdintasunerako aholkularitzak deituta 19:00etan, Kultur Etxean.

Erakusketa

■ Urriaren amaierara arte. Iñaki Caperochipiren Papua Ginea Berriko erretratuen erakusketa. Salatxo tabernan.

Bingoa

■ Asteazkenero, bingoa, Zaharren Babes Lekuak antolatuta. 16:30ean, Kultur Etxean.

COMPROMISO EUSKADI AURRERA



eaaj
pnv

PROGRAMA



Hitzaz ematen dut.

urkullu.eu